

# EUSKAL LIBURUAREN FRANKISMO OSTEKO ZENTSURA (1975-1983)

*Ana Gandara Sorarrain*  
(editorea)

erren la zabal oazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

*CIP. Biblioteca Universitaria*

**Euskal** liburuaren frankismo osteko zentsura (1975-1983) / Ana Gandara Sorarrain (editorea). – [Leioa]: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, D.L. 2022. – 310 p.: il., gráf. ; 23 cm. – (Educación y Psicología ; 24)

Incluye referencias bibliográficas.

D.L.: BI 01592-2022. – ISBN: 978-84-1319-485-1.

1. Censura – España. 2. Literatura vasca – Siglo XX. 3. Edición – País Vasco.  
I. Gandara Sorarrain, Ana, editor.

.69.09»19»

351.751.5(460)»1975/1983»



Argitalpen hau, IT 1047-16 (Eusko Jaurlaritza), US 17/10 (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta FFI2017-84342-P (MINECO) ikerketa proiektuen baitan garatu da.

- © Edizioarena: Ana Gandara Sorarrain.
- © Artikuluena: Izaro Arroita Azkarate, Mikel Ayerbe Sudupe, Amaia Elizalde Estenaga, Nagore Fernandez Zabala, Ana Gandara Sorarrain, Miren Ibarluzea Santisteban, Ismael Manterola Izpizua, Beñat Sarasola Santamaria, Ainhoa Urzelai Vicente, Ane Villagran Arrastoa.
- © Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua  
ISBN: 978-84-1319-485-1  
Depósito legal/Lege gordailua: LG BI 01592-2022

## Eskaintza

Joan Mari Torrealdai (1942-2020) izan dugu ikerketa honetan gidari eta maisu, eta hari eskaintzen diogu, bihotzez eta esker onez, liburu hau. Zentsura frankistari buruzko bere doktore tesia helarazi zigun, eta AGAra (Archivo de la Administración General) jaisten ginen bakoitzean, berarekin partekatzen genituen bertan gertatutakoak. Plazer hutsa izan zen beti zentsurari buruzkoak Joan Marirekin hausnartzea, bere lan erraldoian barneratuz joatea. Gurekin jarraitzen du, noski, ez bakarrik esan eta argitaratu zituenak akuilu ditugulako, baita euskal liburuari buruzko ikerketa berriak sustatzen lagundu zigulako ere. «Joan Mari Torrealdairen txokoa» izena jarri genion, hain justu, gure webgunean euskal edizioaren ikerketaren atalari (<https://mhli.net/joan-mari-torrealdairen-txokoa/>). Bertan jasotzen direnek eta MHLI ikertaldeak argitaratuek, hala nola zentsurari buruzko *Euskera* aldizkariaren ale monografikoak (63 zb, 2018) eta *Literatura y Censura. Memorias contestadas* (Peter Lang, 2020) liburuak, Francopeko zentsurari buruzkoak jasotzen dituzte. Orriotan jasotzen direnek, berriz, Franco hil osteko zentsuraz ikertu duguna eskaintzen dute.

«AGAra zoaztela jakiteak nolabait gaztetu egiten nau, garai haiek gogora ekarriz. Urte sasoi honetan izan ohi nintzen bertan, lau urtez. Konta idazu bueltakoan nola joan zaizuen. Sekulako jakinmina dut». Halaxe idatzi zion ikertaldeko kide bati Joan Marik 2018ko uztailaren 5ean. Eta horixe duzu, irakurle, ondoko lerroetan aurkituko duzuna, AGAko gure joan-etorrien kontatera.

2022ko apirila

Mari Jose Olaziregi Alustiza  
*Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLI)*  
*Ikertaldearen zuzendaria*

## AURKIBIDEA

|                                                                                                                                                                                                        |               |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| <b>Liburuan zehar agertzen diren akronimoak . . . . .</b>                                                                                                                                              | <b>13</b>     |
| <b>Aitzinsolasa . . . . .</b>                                                                                                                                                                          | <b>15</b>     |
| 1. Metodologia . . . . .                                                                                                                                                                               | 16            |
| 1.1. Prozedura eta datuak . . . . .                                                                                                                                                                    | 16            |
| 1.2. Zentsura fitxak . . . . .                                                                                                                                                                         | 16            |
| 1.3. Zailtasunak eta mugak . . . . .                                                                                                                                                                   | 20            |
| 2. Zentsura aparatua, bere osotasunean . . . . .                                                                                                                                                       | 21            |
| 3. Kapituluen edukiaz . . . . .                                                                                                                                                                        | 22            |
| 4. Ondorioak . . . . .                                                                                                                                                                                 | 24            |
| <i>Eskerrak</i> . . . . .                                                                                                                                                                              | 25            |
| 5. Aipaturiko bibliografia . . . . .                                                                                                                                                                   | 25            |
| 6. Irudien aurkibidea . . . . .                                                                                                                                                                        | 26            |
| <br>1. kapitulua. <b>1975az geroztik euskal liburugintzari eragin zion zentsura instituzionalaren legedia. Liburuen zentsura orokorra, HGLri lotutako neurriak eta argialetxeen kontrola . . . . .</b> | <br><b>27</b> |
| 1. Sarrera . . . . .                                                                                                                                                                                   | 27            |
| 2. Oinarri teoriko-metodologikoak . . . . .                                                                                                                                                            | 28            |
| 3. Datuen azterketa . . . . .                                                                                                                                                                          | 29            |
| 3.1. Liburuen zentsura orokorra 1966tik aurrera . . . . .                                                                                                                                              | 29            |
| 3.2. Haur eta gazteei zuzendutako argitalpenen berariazko legedia . . . . .                                                                                                                            | 34            |
| 3.3. Zentsura instituzionalaren eragina euskal liburugintzaren azpiegituran: euskal argialetxeak 1966tik 1983ra . . . . .                                                                              | 45            |
| 3.4. Francoren erregimenpeko Euskal Herriko argialetxeak 1966tik aurrera: legeak, kopuruak eta bizipenak . . . . .                                                                                     | 46            |
| 4. Ondorioak . . . . .                                                                                                                                                                                 | 51            |

|                                                                                                                                                                                                                               |            |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| 5. Aipaturiko bibliografia . . . . .                                                                                                                                                                                          | 54         |
| 6. Grafikoen aurkibidea . . . . .                                                                                                                                                                                             | 55         |
| <b>2. kapitulua. Itzulpena eta zentsura 1975-1983 aldian. Euskarazko itzulpenak eta itzulpena bitarteko gisa zentsura prozesuan . . .</b>                                                                                     | <b>57</b>  |
| 1. Sarrera . . . . .                                                                                                                                                                                                          | 57         |
| 2. Zenbait zehaztapen zentsura eta itzulpenaren ikerketaz, gure corpusaren osaketaz eta azterlan honen atalez . . . . .                                                                                                       | 58         |
| 2.1. Zeri eta nola erreparatu, eta zer dioten aurretik egindako lanek . . . . .                                                                                                                                               | 58         |
| 2.2. Lan honen helburuak eta corpusaren osaketa . . . . .                                                                                                                                                                     | 61         |
| 2.3. Lan honetako aztergaiez . . . . .                                                                                                                                                                                        | 62         |
| 3. Itzulpenaren ikusgarritasuna zentsura prozesuan . . . . .                                                                                                                                                                  | 64         |
| 3.1. Itzultzaileen ikusgarritasuna eskarietan . . . . .                                                                                                                                                                       | 64         |
| 3.2. Erreferentziak itzultitako lanen jatorrizkoari edota gaztelaniazko bertsioari . . . . .                                                                                                                                  | 69         |
| 3.3. Eskarien materialtasunak itzulpena ikusgai egiteaz . . . . .                                                                                                                                                             | 74         |
| 4. Irakurle zentsoreen oharrak itzulpenei buruz . . . . .                                                                                                                                                                     | 76         |
| 5. Irakurle zentsoreak, itzultzaile . . . . .                                                                                                                                                                                 | 80         |
| 6. Ondorioak . . . . .                                                                                                                                                                                                        | 95         |
| 7. Aipaturiko bibliografia . . . . .                                                                                                                                                                                          | 98         |
| 8. Irudien aurkibidea . . . . .                                                                                                                                                                                               | 98         |
| 9. Eranskinak . . . . .                                                                                                                                                                                                       | 99         |
| I eranskina . . . . .                                                                                                                                                                                                         | 99         |
| II eranskina . . . . .                                                                                                                                                                                                        | 100        |
| <b>3. kapitulua. Haur eta Gazte Literatura gisa sailkatutako euskal liburuaren zentsura txostenen azterketa (1975-1983 epealdia) . .</b>                                                                                      | <b>115</b> |
| 1. Sarrera . . . . .                                                                                                                                                                                                          | 115        |
| 1.1. Haur eta Gazte Literatura. Genero bere(i)zia . . . . .                                                                                                                                                                   | 117        |
| 2. Oinarri teorikoak . . . . .                                                                                                                                                                                                | 119        |
| 2.1. Zentsura: mundu zabaleko gaitza . . . . .                                                                                                                                                                                | 119        |
| 2.2. HGLren zentsuraren ikerketa aurrekariak gurean . . . . .                                                                                                                                                                 | 122        |
| 2.3. Frankismo garaiko zentsura Haur eta Gazte Literaturan . .                                                                                                                                                                | 123        |
| 2.4. HGLren susperraldia: ikastolen mugimendua, euskara batuaren sorrera, euskararen ofizialtasuna, umeentzako liburuetan espezializazioa, eraberritze pedagogikoa, berrikuntza tematikoa eta merkatuaren irekitzea . . . . . | 124        |
| 2.5. Frankismo garaiko zentsura legedi eta horren eragina HGL argitalpenetan . . . . .                                                                                                                                        | 133        |

|                                                                                                                 |     |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| 3. Metodologia .....                                                                                            | 134 |
| 4. Analisia. ....                                                                                               | 137 |
| 4.1. Zentsura fitxen peritestualitatea .....                                                                    | 137 |
| 4.2. Didaktika eta Literatura .....                                                                             | 139 |
| 4.3. Informeak eta ebazpenak .....                                                                              | 141 |
| 4.4. Irakurleak, zenbaki huts .....                                                                             | 143 |
| 4.5. Zentsura fitxen irakurketa .....                                                                           | 144 |
| 5. Ondorioak. ....                                                                                              | 172 |
| 6. Aipaturiko bibliografia. ....                                                                                | 175 |
| 7. Taulen aurkibidea .....                                                                                      | 183 |
| 8. Irudien aurkibidea .....                                                                                     | 183 |
| 9. Eranskinak .....                                                                                             | 184 |
| <br>4. kapitulua. <b>Helduei zuzenduriko euskarazko liburuen zentsura irakurketak 1975-1983 bitartean</b> ..... | 185 |
| 1. Sarrera .....                                                                                                | 185 |
| 2. Euskarazko liburu argitalpena vs zentsuratik pasatakoak .....                                                | 186 |
| 3. 1975etik 1977ko apirilera bitarteko aldia. ....                                                              | 189 |
| 3.1. Irakurleak urtez urte .....                                                                                | 190 |
| 3.2. 1975-1977 urte bitarteko txostenetatik eratorririko auzi esanguratsuenak .....                             | 193 |
| 4. 1977ko apiriletik 1983ra arteko aldia. ....                                                                  | 203 |
| 4.1. Irakurleak .....                                                                                           | 205 |
| 4.2. 1977-1983 urte bitarteko txostenetatik eratorririko auzi esanguratsuenak .....                             | 207 |
| 5. Ondorioak. ....                                                                                              | 213 |
| 6. Aipaturiko bibliografia. ....                                                                                | 215 |
| 7. Taulen aurkibidea .....                                                                                      | 216 |
| <br>5. kapitulua. <b>AGAKo euskarazko liburuen zentsura, zenbakitan (1975-1983)</b> .....                       | 217 |
| 1. Sarrera .....                                                                                                | 217 |
| 2. Metodologia .....                                                                                            | 218 |
| 2.1. Datu bilketa .....                                                                                         | 218 |
| 2.2. Datu azterketa. ....                                                                                       | 219 |
| 2.3. Datuen biltzetarako zailtasunak .....                                                                      | 221 |
| 3. Emaitzak. ....                                                                                               | 225 |
| 3.1. Datu orokorrak .....                                                                                       | 225 |
| 3.2. HGL .....                                                                                                  | 232 |

|                                                                                                                                                                                                 |         |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|
| 3.3. Itzulpena.....                                                                                                                                                                             | 250     |
| 3.4. Irakurleak .....                                                                                                                                                                           | 259     |
| 4. Laburpena eta ondorioak .....                                                                                                                                                                | 264     |
| 5. Aipaturiko bibliografia .....                                                                                                                                                                | 266     |
| 6. Grafikoen aurkibidea .....                                                                                                                                                                   | 267     |
| 7. Taulen aurkibidea .....                                                                                                                                                                      | 268     |
| <br>6. kapitulua. <b>Gehigarriak: lege testuak</b> .....                                                                                                                                        | <br>271 |
| I. gehigarria. BOLETÍN OFICIAL DEL ESTADO, jueves<br>24 de diciembre de 1936, n.º 66. ....                                                                                                      | 272     |
| II. gehigarria. BOLETÍN OFICIAL DEL ESTADO, 24 de<br>abril de 1938, n.º 550. ....                                                                                                               | 280     |
| III. gehigarria. ORDEN de 15 de julio de 1939, creando una<br>Sección de Censura dependiente de la Jefatura<br>del Servicio Nacional de Propaganda y afecta a<br>la Secretaría General .....    | 283     |
| IV. gehigarria. DECRETO de 24 de junio de 1955, por el que<br>se establecen las normas a que han de ajustarse<br>las publicaciones infantiles y juveniles .....                                 | 285     |
| V. gehigarria. ORDEN acordada en Consejo de Ministros de<br>24 de junio de 1955, por la que se desarrolla<br>el Decreto sobre ordenación de las publicacio-<br>nes infantiles y juveniles ..... | 287     |
| VI. gehigarria. ORDEN de 13 de octubre de 1962, por la que<br>se regula la composición funcionamiento del<br>Consejo Nacional de Prensa. ....                                                   | 292     |
| VII. gehigarria. DECRETO 748/1966, de 31 de marzo, relativo<br>al Registro de las Empresas Editoriales. ....                                                                                    | 294     |
| VIII. gehigarria. Ley 14/1966, de 18 de marzo, de Prensa e Im-<br>prenta .....                                                                                                                  | 296     |
| IX. gehigarria. DECRETO 195/1967, de 19 de enero, por el<br>que se aprueba el Estatuto de Publicaciones In-<br>fantiles y Juveniles. ....                                                       | 302     |
| X. gehigarria. REAL DECRETO-LEY 24/1977, de 1 de abril,<br>sobre libertad de expresión .....                                                                                                    | 306     |
| XI. gehigarria. LEY 62/1978, de 26 de diciembre, de Protec-<br>ción Jurisdiccional de los Derechos Funda-<br>mentales de la Persona. ....                                                       | 308     |

## **Liburuan zehar agertzen diren akronimoak**

|        |                                                                         |
|--------|-------------------------------------------------------------------------|
| AGA    | Archivo General de la Administración.                                   |
| ALA    | American Library Association.                                           |
| BOE    | Boletín Oficial del Estado.                                             |
| CIPJI  | Comisión de Información y Publicaciones Infantiles y Juveniles.         |
| CNP    | Consejo Nacional de Prensa.                                             |
| CEOM   | Comisión Episcopal de Ortodoxia y Moralidad.                            |
| DGP    | Dirección General de Prensa.                                            |
| EPIJ   | Estatuto de Publicaciones Infantiles y Juveniles.                       |
| FET    | Falange Española Tradicionalista.                                       |
| HGL    | Haur eta Gazte Literatura.                                              |
| IBBY   | International Board on Books for Young People.                          |
| JAPI   | Junta Asesora de Prensa Infantil.                                       |
| JONS   | Juntal de Ofensiva Nacional-Sindicalista.                               |
| MC     | Ministerio de Cultura.                                                  |
| MCB    | Ministerio de Cultura y Bienestar.                                      |
| MEN    | Ministerio de Educación Nacional.                                       |
| OEPLI  | Organización Española para el Libro Infantil y Juvenil.                 |
| REE    | Registro de Empresas Editoriales.                                       |
| REIPE  | Registro de Empresas Importadoras de Publicaciones Extranjeras.         |
| RPIDGP | Registro de Publicaciones Infantiles de la Dirección General de Prensa. |



## Aitzinsolasa

Ana Gandara Sorarrain  
(UPV/EHU)

Esku artean duzun monografikoak euskarazko liburuen zentsura aztertzea du helburu; zehazki, arakatu ditugu *Archivo General de la Administración* (AGA, Alcalá de Henares) artxibategian diren 1975-1983 bitarteko zentsurara aurkezturiko euskarazko liburuak. Ikerketa Mari Jose Olaziregi Alustiza buru duen Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLI)<sup>1</sup> ikertalde kontsolidatuak (IT 1047-16) gauzatu du, 1975-1983 arteko euskal zentsura aztertzeiko UPV/EHUREN US 17/10 eta MINECOn FFI2017-84342-P proiektuen baitan. Hala, bada, lan honetan biltzen direnak ikerketa zabalago horren emaitza dira, baina ez guztiak. Ikertaldeak bere webgunean jarriak ditu (<https://mhl.net/>), guztiondako eskuragarri, ikerketa horrekin eta taldearen lanarekin loturiko material eta berriak; horregatik, liburuan biltzen ditugunak eta webgunekoak elkarren osagarriak dira, eta halaxe adierazita dago kapituluz kapitulukako informazioan.

Abiapuntua, ordea, Joan Mari Torrealdai (1942-2020) zenak eginitako lana izan da. Hari jarraipena eman nahi izan diogu, gauza jakina baita Torrealdaik euskal liburuen zentsura ausarki aztertu zuela. Horren erakusle dira *La censura gubernativa y el libro vasco (1936-1983)*. *Análisis de los informes del lectorado* (1995, Deustu, argitaragabea) doktorego tesitik hasi eta *De la hoguera al lápiz rojo. La Censura franquista en el País Vasco* (Txertoa, 2019) lanerainokoak. Tartean argitaratu zituen doktorego tesia iturri duten *La censura de Franco y los escritores vascos del 98* (Tarttalo, 1998), *La censura de*

---

<sup>1</sup> Ikertaldea, egun, 13 kidez osatua da, eta horietarik 8 agertzen badira ere lan honetan idazle, ikertaldeko kide guztiek parte hartu dute datuen bilketan lanean.

*Franco y el tema vasco* (Kutxa Fundazioa, 1999) eta *Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura (1936-1983)* (Susa, 2000) saiakerak. Horiek horrela, esku artean duzun monografikoaren ekarpena da espresuki 1975-1983 bitarteko euskarazko liburuen zentsura sistematikoki aztertu izana —betiere, arestian azaldu gisa, AGAn erregistraturik altxatu diren espedienteek ari garelarik—.

## 1. METODOLOGIA

### 1.1. Prozedura eta datuak

Metodologiari dagokionez, ikerketa lan enpiriko deskribatzailea egin dugu, ikerketa datuak AGAtik hartuta. Bertan diren 1975-1983 bitarteko euskarazko liburuen zentsura fitxak aztertzeko batez ere metodologia kualitatiboa erabili dugu, zentsura fitxetako atal eta informazio nagusia kontuan izanik; alabaina, datu horietarik zenbait kuantifikatu eta SPSS programa medio landu dira (ikus Gandara Sorarrainen «AGAk euskarazko liburuen zentsura, zenbakitan (1975-1983)» kapitulua).

Datu bilketa sistematikoa egin dugu MHLI ikertaldeko kideek AGAra jaitsi eta aztergai den garaiko euskal liburuen espediente guztiak —545 espediente, lan itzuliak zein ez itzuliak— bilatuaz fondo publikoetan; orotara 12 bidaia izan dira, 2018-2020 bitarte. Horretarako, lehenik, 1975-1983 bitartean Hego Euskal Herrian zentsurara aurkezturiko euskarazko liburuen erregistroa osatu dugu lehen bi bidaietan, betiere AGAn bertan dagoen erregistro zabaletik abiatuta; hau da, 1975-1983 bitartean zentsuratik pasatako lan guztien artetik hautatu ditugu euskaraz idatziak. Bigarrenik, euskarazko lanen erregistro baheetua lagun, erreferentzia bakoitzeko kaxa arakatu dugu fitxa zehatzaren bila. Hirugarrenik, fitxetako informazioa biltzeko, datuak transkribatu edo/eta fotokopia bidez geuretu ditugu. Azkenik, datu horietarik sistematikoki errepikatzen direnak eta kuantifikagarriak direnak Excellean transkribatu ditugu, fitxetako informazioa hustuz.

### 1.2. Zentsura fitxak

Zentsura fitxak bateratuta daude espediente desberdinak biltzen dituzten kaxetan.<sup>2</sup> Hala, kaxa horietarik bakoitzean espediente bana gori-

---

<sup>2</sup> Dela txosten dela fitxa laburtuetan agertzen diren jatorrizko erratak edo akatsak bere horretan utzi ditugu.

detzen duten gutun-azalak daude eta, horien barnean, dagokion fitxa. Fitxa horietan modu sistematikoan errepikatzen den informazioa dago, nahiz eta espediente guztietan ez den beti dokumentazio bera aurkitzen. Torrealdaik azaldua duenez, honakoak dira espedienteetan agertu ahal direnak: obraren fitxa teknikoa, alea(k), txostenak — zentsore(ar)enak, zentsura buruarenak, bertze ministerio batzuetakoak, epailearenak —, obraren bertsio itzulia, delegatu probintzialaren informea, obraren inguruko prentsa artikulua eta egilearen inguruan zentsurak osatutako informe politiko-soziala (1998).

Fitxa teknikoari dagokionez, modu sistematikoan agertzen dira obraren datuak: espediente zenbakia, izenburua, autoreak, argitaletxea, tirada, sarrera data, Irakurle<sup>3</sup> zenbakia eta ebazpena (ikus 1. irudia).

MINISTERIO DE INFORMACION Y DOCUMENTACION  
SUBDIRECCION GENERAL DE CULTURA Y PATRIMONIO

Régimen Editorial

In 10,30 h.

EXPEDIENTE N.º 6991-76

FECHA DE PRESENTACION: 10-6-76 VENCIMIENTO LEGAL:

TITULO DE LA OBRA: EUSKARAREN IDEOLOGIAK I

AUTOR: JUARISTI, Jon

EDITORIAL: Autor

NUMERO DE PAGINAS: 80

TIRADA OFICIALMENTE DECLARADA: 1200

ANTECEDENTES:

EDICION:

IMPORTACION:

PASE AL LECTOR: 2

MADRID, 10 DE 6 DE 1976

EL JEFE DE SECCIONADO:

A.G.A.

1. irudia


### Fitxa tekniko bat.

**Adibidea: Euskararen ideologiak I (1976, Jon Juaristi)**

(iturria: AGA, 6991-76 esp.)

<sup>3</sup> «Irakurle» terminoarekin erreferentzia egiten diegu zentsura lanetan aritu ziren Lector direlakoei.

Horren ondotik, informea agertzen da, lana argitaragarria den edo ez aztertuz, segidan agertzen delarik «Informe y otras observaciones» atala Irakurlearen bertzelako ohar edo aldaketa proposamenekin. «Resolución» delakoan behin-behineko ebazpena agertzen da, Irakurleen zuzendaritzak emana eta, azkenik, inspektzio zuzendaritzak sinatzen du behin betiko ebazpena.

| <u>INFORME</u>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | <u>OBSERVACIONES</u> |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|
| <p>ENSAYO LINGÜÍSTICO-LITERARIO acerca del origen del vascoense, basado principalmente en las tesis de la influencia sociológica y del poder dominante en torno a la evolución que explicaría su condición de estar reducido el lenguaje a lo elemental cuando de que los que han mandado en el Pueblo Vasco, a través de la historia, han sido los no vascos. Este ensayo no ofrece peligrosidad social y que queda en el nivel teórico de ensayo.</p> <p>OBSERVACION: Las páginas 8, 9, 12, 13 y 16 aparecen en blanco pero, dado el contexto, hay que presumir que llevan contenido, aunque no parece que puedan incluir algo peligroso.-</p> |                      |
| <p>MADRID, 10 DE <u>junio</u> DE 1976</p> <p>CONFORME: JEFE DE LECTORADO,  CONFORME: JEFE SERVICIO EDITORIAL,</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |                      |
| <p></p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |                      |

2. irudia

### Informe bat.

**Adibidea: *Euskararen ideologiak I* (1976, Jon Juaristi)**

(iturria: AGA, 6991-76 esp.)

Edozein gisatan, kasu gehienetan fitxa tekniko laburtua agertzen da, kartulina urdin batean emana, sarrera data eta Irakurle zenbakia aitazineko aldean (ikus 3. irudia) eta, gibelean, ebazpena eta, hala dago-kionean, onarpen datarekin (ikus 4. irudia):

D. Expediente núm. 6991-76

---

**Título:** EUSKARAREN IDEOLOGIAK I

**Autor:** JUARISTI, Jon

**Editor:** Autor

**Tirada:** 1200


**Fecha entrada:** 10-6-76 **Fecha salida:** \_\_\_\_\_

**Lector núm.** 2 **Entregada:** \_\_\_\_\_

AGA.  
Mod. 421

3. irudia

**Fitxa tekniko laburtu baten aitzineko aldea.**  
**Adibidea:** *Euskararen ideologiak I* (1976, Jon Juaristi)  
*(iturria: AGA, 6991-76 esp.)*



4. irudia

**Fitxa tekniko laburtu baten gibleko aldea.**  
**Adibidea:** *Euskararen ideologiak I* (1976, Jon Juaristi)  
*(iturria: AGA, 6991-76 esp.)*

Kasuren batean, aipatuei «Director General» eta «Oficial de Comprobación» direlakoan onepenak ere gaineratzen zaizkie.

### 1.3. Zailtasunak eta mugak

Datu bilketarako zailtasunak izan ditugu. Euskarazko liburuen erregistrorik ez egoteak hasieratik zaildu zuen bilaketa, AGAn erregistro orokorra egoteaz gain, bahetu gabeko informazioa —zenbaitetan okerra edo nahasia— baita; are gehiago, hasiera-hasieratik sumatu genuen izenburuetan akatsak eta erratak zeudela. Gainera, Artxiboaren antolaketak berak ez du laguntzen, kaxa kopuruak eskatzeko mugak eta lanketarako nahiz informazio bilketarako traba anitz baitaude; hala, eguneko eta pertsonako 10 kaxa eskatu ahal dira eta sala amankomun bateko mahaietan egin behar da behaketa, materiala manipulatzeko argazkirik edo momentuan kopiarik ezin delarik egin. Azken horiek, kasu, enkargatu eta hilabete batzuen bueltan bidaltzen dituzte. Horrek guztiak ikerketan aitzina egiteko erritmoa mantsotu eta datu bilketa zaildu du, AGAko goizeko ordutegi murritzuekin batera.

Zailtasun logistikoez gain, zentsura fitxetan bertan informazioa aletzeko ere izan dugu konplikaziorik; izan ere, zenbaitetan informazioa falta da —sistematikoki agertzen diren datuetarik baten bat ez dago, adibidez— edo ezin da ongi interpretatu —Irakurleen erreferentzia, kasu—. Halako zailtasunak izan direnetan, kapituluz kapitulu ikusiko denez, gabeziaren aitortza egin dugu, eta kasuan kasuko irtenbidea eman zaio azterketarekin aitzina egin ahal izateko.

Edozein gisatan, lan honen muga nagusiak bi dira: batetik, zentsurara aurkeztu ziren euskarazko liburu ororen fitxak AGAn ote diren edo ez jakitea eta, era berean, bertzelako artxibategietan (Probintzia Delegaritzan, kasu) ziratekeen espedienteak identifikatzea; bertzetik, momentuz ez dugu urtez urte, 1975-1983 bitarte, argitaratutako euskarazko liburuen zerrenda osoarekin erkatu gure erregistroa, nahiz eta etorkizunean egiteko horri helduko diogun. Aipatu mugak lanerako etorkizun joria iradokitzen digute eta, denborarekin, gogoz helduko diegu erronka berri horiei ere.

## 2. ZENTSURA APARATUA, BERE OSOTASUNEAN

Zentsura egitate administratiboa baino gehiago izan zen aztergai ditugun urteetan. Hori dela eta, monografiko honetan zentsura aparatuen baitako engranaje konplexuari erreparatuko diogu. Aipatu konplexutasunaren seinale dira zentsura aparatuen baitako agente, mekanismo eta horiek babesten eta oinarritzen zituzten legeak. Hala, bada, zentsura mekanismoaren funtzionamendua ulertzeko mugarri dira zentsura prozesuaren sostengu izan ziren Irakurleak, depositoak eta erreregistroak nahiz horien aterpe izan ziren legeak.<sup>4</sup>

Agerikoa denez, monografikoan zehar etengabe arituko gara Irakurle izan zirenei buruz. Zentsuraren langile izan ziren, nahiz eta gauza jakina den Irakurleren baten «onberatasun», «nahaste» edo «ezjakintasunari» eskerrak argitaratu ahal izan zela obra zenbait. Kapituluetako egileek horiei buruz azalpen zehatzak eskainiko badituzte ere, bada Irakurleei loturiko hainbat ideia hasiera-hasieratik gogoan izatea komeni dena. Hala nola zenbaki bidez agertzen direla espedientee-tan, baina ez dagoela zenbaki bakoitza Irakurle batekin identifikatzerik —salbuespenak albuespen, aitzinago azalduko denez—, ez baita denboran zehar zenbaki-Irakurle korrelaziorik mantentzen. Gainera, txostenetan beren itzala modu desberdinetan agertzen da, kendu beharreko testu zati eta irudiak azpimarratu edo ezabatu egiten baitzituzten arkatz gorri eta urdinez.

Legeen artean garrantzitsua da 1966ko martxoaren 18koa (14/1966) —«Fragaren Lege» gisa ezaguna dena—. 1977ra arte iraun zuen indarrean, eta lege horrekin akitu zen zentsura bere erranahi juridikoan, baina mekanismo instituzional eta azpiegiturei dagokienez ez zen aldatetik sumatu (Torrealda 2000); era berean, argitaletxei erreparatzen zitzairen, bereziki, lege berri harekin. Gainera, egoerak ez zuen aldaketarik jasan «Antilibelo Lege» gisa ezaguna den 1977ko apirilaren 1eko Errege Dekretu Legearekin (24/1977), eta berdin iraun zuen argitaletxeen azpiegitura eta prozedura mailako kontrolak. *Ministerio de Información y Turismo* (MIT), bere aldetik, izena aldatu zuen; ez, ordea, azpiegitura; aitzitik, Irakurleek, depositoek eta erreregistroek bazirauten, eta aldatetik gabeko «eraldaketa» horretan MIT *Ministerio de Cultura y Bienestar* (MCB) izatera pasa zen Adolfo Suárez presidentearen

---

<sup>4</sup> Ikus liburuari itxiera ematen dion «Gehigarriak: lege testuak» atala.

legedialdian. 1978ko azaroaren 26ko Legeak (26/1978), Pertsonaren Oinarriko Eskubideen Babes Jurisdikzionalarenak, bertan behera utzi zuen Antilibelo Legea.

Haur eta Gazte Literaturaren (HGL) kasua berezia izan zen, espre-suki HGLrentzat zuzendua zen lege banakorik izan ez arren, tratu berezitua jasan baitzuen: erdiz erdi eragin zioten genero horri idazleen autozentsurak nahiz argitaletxeen zentsurak, Eliza Katolikoaren eta *Junta Asesora de Prensa Infantil* (JAPI, 1952an MITren baitan sortua) delakoaren kontrolak. Azken horren eskumenak *Comisión de Información y Publicaciones Infantiles y Juveniles* (CIPIJ) transferitu zitzaizkion 60ko hamarkadan. Kasu honetan, gainerako argitalpenekin ez bezala, 1966ko Legeak derrigortzen zituen HGLko lanak argitaratu aitzinetik MITn aurkeztera. Liburuan zehar agertuko denez, tratu berezitu horren giblean zentsuraren obsesio nagusietarik bat zegoen: heziketa.

Lege horien jazarpena sostengatzen zuten erakundeak eta organoak ere anitz izan ziren: *Consejo Nacional de Prensa* (CNP), *Comisión Episcopal de Ortodoxia y Moralidad* (CEOM), *Dirección General de Prensa* (DGP), MIT edo haren ondotiko MCB, Probintzia Delegaritza eta *Registro de Publicaciones Infantiles y Juveniles de la Dirección General de Prensa* (RPIDGP), bertzeak bertze. Gainera, zentsura mekanismoaren prozedurak nahiz horiek berak aditzera ematen zituzten adierazleek zentsura prozeduraren berri emanen digute: aurretiazko borondatezko kontsulta, depositoa, MITan alearen 6 kopia utzi beharra, *Registro de Empresas y Editoriales*en (REE) erregistratzea edota, nola ez, argitalpenen bahiketak berak.

### 3. KAPITULUEN EDUKIAZ

Lan honen egiturari dagokionez, «Aitzinsolasa» eta «Gehigarriak: lege testuak» atalez gain, bortz kapituluz osatua da monografi-koa. Lehenik, (1) «1975az geroztik euskal liburugintzari eragin zion zentsura instituzionalaren legedia» kapituluan, legedi kontuez arituko dira Amaia Elizalde Estenaga eta Ismael Manterola Ispizua irakasle ikerlariak. Zentsurari loturiko lege nagusiak aletzeaz gain, horiek epe motzera eta ertainera zentsura prozesuan izaniko eragina aztertu dute. Hasiera kapitulu honetan zentsuraren lege amarauna eta prozesu debekatzaileen konplexutasuna aurkezten dira.